



OSOKO BILKURAREN AKTA

SAIOAREN DATUAK	
Kide anitzeko organoa:	Osoko Bilkura
Deialdi-mota:	Ezohikoa
Data:	2023ko abenduaren 22a
Iraupena:	9:46tik 10:13ra
Lekua:	Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa
Udalburutza:	Unai Gutierrez Urkiza
Idazkaritza:	Oiartza Urquijo Alaña
SAIORA BERTARATZEA	
ALKATE-UDALBURUA	BERTARATU DA
UNAI GUTIERREZ URKIZA	BAI
ZINEGOTZIAK	BERTARATU DIRA
CRISTINA LARRAZABAL IBAÑEZ DE ELEJALDE	EZ
AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA	BAI
MARIA INMACULADA ELORZA BERGARA	BAI
MARIA ELENA URCELAY ALTUNA	BAI
NEREA IDIGORAS LASAGA	BAI
MARIELA BARAÑANO GOIRIZELAIA	BAI
ALBERTO RUIZ DE OLANO APODACA	EZ
ANDER BARANDICA SANTOS	BAI
ALVARO RUIZ OTXOA DE ERIBE	EZ
ANDRES LAFUENTE OTXOA	BAI



Murgian, 2023ko abenduaren 22an, 09:46ak direnean, aurretik legearen arabera deialdia eginda, Bilkura egin da Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan. Behean zerrendatzen diren zinegotzi jaun-andreak bildu dira, Unai Gutierrez Urkiza alkate jaunak zuzendu du bilkura, eta Oiertza Urquijo Alaña andreak Udalbatzako idazkari lanak egin ditu.

Idazkariak kide anitzeko organoa behar bezala eratu dela egiaztatu ondoren, udalburuak bilkurari hasiera eman, eta gai-zerrendako aztergaiak eztabaidatu dira.

1.- AURREKO BILKUREN AKTA ONARTZEA.

Aurreko bilkuraren akta ikusirik, 2023ko urriaren 19koa, Udalbatzak onartu egin du.

2.- 2024KO URTEKO ARAUGINTZA PLANA ONARTZEA.

ALKATE-UDALBURUAK hitza hartu, eta idazkari kontu-hartzaileari eman dio hitza. Idazkariak gai-zerrendako puntu honen xedea azaldu du.

KONTUAN HARTUTA Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 132. artikuluan ezartzen duela administrazio publikoek Araugintza Plan bat argitaratuko dutela urtero, eta plan horrek hurrengo urtean onartzeko aurkeztuko diren lege- edo erregelamendu-ekimenak jasoko dituela. Era berean, Urteko Araugintza Plana onartu ondoren dagokion Administrazio Publikoaren Gardentasunaren Atarian argitaratuko dela xedatzen da.

KONTUAN HARTUTA aurreikuspen horren helburua ordenamendu juridikoaren gardentasuna eta auresagarritasuna areagotzea dela, bai eta segurtasun juridikoaren printzipioa betetzea ere. Aldi berean, araugintza-ekimena gardenagoa izango da, izan ere, haren edukia argitaratu ostean, gainerako administrazio publikoek eta herritarrek aldez aurretik jakin ahal izango dute zer arau onartuko dituen administrazio jakin batek.

IKUSIRIK Idazkaritzak 2023/13/13an egindako txosten juridikoa eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d) artikuluan xedatutakoari jarraiki, Osoko Bilkurak



Proposamena AZTERTUTA, Udalbatzako kideek gaia eztabaidatu dute, eta Udalbatzaren **Osoko Bilkura** ados dago **aho batez**, bertaratutako kide guztien aldeko botoarekin: EH BILDU (6), EAJ-PNV (2) eta ZBG-ZNU (1); beraz, Udalbatzako kideen legeko kopuruaren gehiengo osoak ordezkatzeko duen quorumarekin, honakoa **ERABAKI DU**:

LEHENENGOA. - Zuiako Udalaren 2024rako Urteko Araugintza Plana onartzea, honekin batera eranskin gisa doana.

BIGARRENA. - Zuiako Udalaren Urteko Araugintza Plana udalaren webgunean (www.zuia.eus) argitaratzeko agintzea.

HIRUGARRENA. - ALKATE-UDALBURU jaunari, edo legearen arabera bere ordezkari denari, gaitasuna ematea erabaki hau gauzatzeko beharrezkoak diren egintzak buru ditzan udalaren izenean eta ordezkari gisa.

3.- EHPM-MPEH-REN (Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendua – Movimiento de Pensionistas de Euskal Herria) MOZIOA ONARTZEA.

ALKATE-UDALBURUAK hitza hartu, eta Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak 2023ko urriaren 31n aurkeztutako mozioa (sarrerazena: 3498) azaldu du. ALKATE-UDALBURUAK adierazi du EH BILDU Zuiako udal-taldeak bere egiten duela aurkeztutako mozioa.

ANDER BARANDICA SANTOS zinegotziak hitza hartu, eta EAJ-PNV Zuiako 2023ko abenduaren 19an aurkeztutako zuzenketari (sarrerazena: 4026) buruzko azalpena eman du. Zuzenketak honela dio, hitzez hitz:

"Pentsioei buruzko zuzenketa.

1.- Zuiako Udalak Estatuko Gobernuari eskatzen dio lanean jarrai dezala pentsio-sistema bat bermatzeko, etorkizunean ereduaren bideragarritasunari eutsiko diona, pentsiodun kalteberenentzako osagarrien sistema indartuz.

2.- Zuiako Udalak EAEko erakunde guztiei eskatzen die lehendik dauden eta Euskadin errotze sozial handia duten neurri osagarriekin jarraitzeko,



hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentarekin, pertsonen oinarritzko premiak bermatzeko eta asetzeko.

Murgian, 2023ko urriaren 19n.

Sin.: Mariela Barañano Goirizelaia."

Aipatutako mozioa eta aurkeztutako zuzenketa ikusirik,

Proposamena AZTERTUTA, Udalbatzako kideek gaia eztabaidatu dute eta, horrekin ados egonik, **Udalbatzaren Osoko Bilkurak, lehenik eta behin, EAJ-PNV Zuiak aurkeztutako zuzenketa bozkatu du**, eta **gehiengo osoz**, hau da, EH BILDUren aurkako botoarekin (6) eta EAJ-PNV (2) eta ZBG-ZNU (1) taldeen aldeko botoekin, bertan behera geratu da.

Proposamena AZTERTUTA, Udalbatzako kideek gaia eztabaidatu dute, eta Udalbatzaren **Osoko Bilkura** ados dago **gehiengo osoz**, EH BILDUren (6) aldeko botoarekin eta EAJ-PNV (2) eta ZBG-ZNU (1) taldeen abstentzioarekin; beraz, Udalbatzako kideen legezkopurua gehiengo osoak ordezkatzeko duen quorumarekin, honakoa **ERABAKI DU**:

LEHENENGOA. - Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduaren mozioa onartzea, zeinak, hitzez hitz, honako hau dioen:

«EHPM-MPEHren mozioa, udaletan, foru-aldundietan eta EUDelen aurkeztu beharrekoa.

EHPM (Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendua) zuengana jotzen dugu, Zuiako Udaleko osoko bilkuran, egoki baderitzozue, mozio bat ONAR dezazuen, gure funtsezko aldarrikapenetako bat babesteko: pentsiodun guztiek gutxienez 1.080 euroko diru-sarrerak izatea bermatzea, 14 ordainsaritan.

Idazki honi erantsita doa Eusko Legebiltzarreko Gizarte Politika eta Gazteria Batzordean egindako eta aurkeztutako txosten laburtua. Bertan, errebindikazio hori eskatzen eta justifikatzen dugu, nola gauzatu eta haren kostuaren estimazioa egiten dugu. Eskatera horrekin hasten da txostena:



«EHPM-MPEHk egindako txosten honen bidez, 2023rako 1.080 euroko gutxieneko pentsioa ezartzeko gure berehalako eskaria bultzatu nahi dugu. Eskaera hori Estatuko Gobernuari eta Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako gobernuei zuzentzen diegu; azken horiei, gainera, eskatzen diegu, gaur egun 783 euroko gutxieneko pentsioa ezartzen ez den bitartean, gutxieneko pentsio hori osatzeko, 1080 eurora arte, hamalau ordainsaritan.

Txosten honekin, beste urrats bat egin dugu gure eskaria azaltzeko, eta EAEn eta Nafarroan behar den aurrekontuaren zenbatespen ekonomikoa kalkulatu dugu».

Gainera, txosten horretan (ikus dezakezuenez) adierazten dugu eskaera hori premia sozial urgentea eta justiziakoa dela, erakunde publikoek herritarrei bizi-baldintza duinak bermatzeko behar diren erabakiak hartzeko betebeharra dutelako; baldintza horiek, beren lanetik datozen diru-sarrerarik ez duten adinekoen eta pentsiodunen kasuan, gutxieneko diru-sarrera nahikoak bermatu behar dituzte.

1080 euroko gutxieneko pentsioa ezartzeak nabarmen murriztuko luke genero-arrakala pentsioetan. Bizi-kostuaren igoeraren arabera pentsioak EZ errealizatzearen ondorioak agerikoak dira, 13. or. Txostenean ikus daitekeenez: "... azken urteetan, 82011tik 2023ra, LGSa 641,40 eurotik 783 eurora igo da. Pentsioak soldata geroratuak dira, zalantzarik gabe, eta horien zenbatekoa zuzenean lotuta dago jasotzen diren soldatekin; beraz, gutxieneko pentsioak ere lanbide arteko gutxieneko soldata izan behar du erreferentziatzat. Onartezina da 2011n LGSaren % 93,7 izatea EPa, eta 2023an % 72,5 izatea».

Bizitzaren kostuaren hazkunde esponentzialaren egungo testuinguruan, gero eta pentsiodun gehiagok zapuztuta ikusten dituzte beren beharretara egokitutako etxebizitza osasungarri bat, elikadura osasuntsua, osasuna bermatzea eta mendekotasunaren arretarako dituzten premiak arintzeko arreta eraginkorra eta abar eskuratzeko aukerak. Gaur egun, EAEko 167.718 pentsiodunek 1080 eurotik beherako diru-sarrerak dituzte pentsioengatik; gehienak emakumeak dira.

Gutxieneko pentsioaren aldagai guztiek emakume-izena dute. Genero-arrakalaren aurrekariak honako hauek dira: soldata-



desberdintasuna eta emakumeek, alde bakarretik, ordaindu gabeko edo gaizki ordaindutako lana esleitzea ugalketaren eta zaintzaren eremuan. 1080ko errebindikazio horrek duela bost urte baino gehiagotik gure mobilizazioetan parte hartu duten eta parte hartzen duten milaka eta milaka pertsonak ematen dioten legimititatea du.

Ondorioztatzen dugu ez dagoela arrazoi ekonomiko edo politikorik ez egiteko, eta ezin dugu egun bat gehiago itxaron. Horregatik, Zuiako Udalbatzaren osoko bilkurari honako erabaki hauek hartzeko eskatzen diogu:

- 1.- EAEko Gobernu eta Legebiltzarra premiatzea pentsiodunen gutxieneko pentsioa 1080 euroraino osa dezaten 14 ordainsaritan, 2023ko urtarrilera arteko atzeraeraginezko ondorioekin.
 - 2.- Udal honen osoko bilkuran 2023ko abenduaren 22an hartutako erabakiaren jakinarazpena bidaltzea EAEko Jaurlaritzari eta Legebiltzarrari.
- Euskal Herria, 2023ko urria».*

BIGARRENA. - EAEko Gobernuari eta Legebiltzarrari eskatzea 1080 euroraino osatu dezatela pentsiodunen gutxieneko pentsioa, 14 ordainsaritan, 2023ko urtarrilera arteko atzeraeraginekin.

HIRUGARRENA. - EAEko Gobernuari eta Legebiltzarrari udal honen osoko bilkuran 2023ko abenduaren 22an hartutako erabakiaren jakinarazpena bidaltzea.

LAUGARRENA. - ALKATE-UDALBURU jaunari, edo legearen arabera bere ordezkari denari, gaitasuna ematea erabaki hau gauzatzeko beharrezkoak diren egintzak buru ditzan udalaren izenean eta ordezkaritza.

4.- TXOSTENAK.

ALKATE-UDALBURUAK hitza hartu, eta 2024ko ekitaldirako udal-aurrekontua egiteko negoziazioak hartzeko faseen berri eman du.

5.- GALDERAK ETA ESKAERAK.

MARIELA BARAÑANO GOIRIZELAIA zinegotziak hitza hartu, eta hurrengo astean URArekin egingo den bilerari buruz galdetu du. ALKATE-



UDALBURUAK bileraren arrazoiak eta data azaldu ditu. Jarraian, Udalbatzak gaia eztabaidatu du, batez ere, Zaroko urmaela etorkizunean ermandade baten bidez kudeatzeaz, haren etorkizuneko funtzionamenduaz...

Berriz ere MARIELA BARAÑANO GOIRIZELAIA zinegotziak hartu du hitza, eta Udalbatzako gainerako kideei Udal aldizkariari buruz informazioa eman ez izana aldarrikatu du. ALKATE-UDALBURUAK azaldu duenez, aldizkaria maketatzen duen enpresak ez du eskuragarri izan aldizkaria zabaltzeko eta Udalbatzako gainerako kideen ekarpenak jasotzeko zirriborrorik. Zinegotziaren esanetan, ez da nahikoa aitzakia, eta hala berretsi du alkate-udalburuak. Udalbatzak udal-aldizkariaren gaia eta edukia eztabaidatu ditu, eta EAJ-PNV Zuia udal-taldeko kideek azpimarratu dute nahiko alderdikoia dela.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, ALKATE-UDALBURU jaunak bilkura amaitutzat eman du 10:13an, eta nik, idazkaria naizen honek, hori guztia egiaztatu dut.

Idazkaritza,